



## TXANTXANGORRI KANTARIA

Gure Malen jaietan agertzen dan «OARSO» errebista edo aldizkaria, jua diran azken iru urte auetan, uts egin badu ere, aurre berriz azaldu nai duela eta, beratu kalera-  
tzeko, aurreko urtetan, nolabait ere osatzen alegindu giñan-  
nak, billera bat egin ondoren, lan au aurrera eramateko as-  
moa artu genduan.

Nere aletxoa jarri bear detala eta bururatu zait, jua  
dan udazkenean «Auspoa» liburutegiak argitaratu zuan  
«Txantxangorri Kantaria» izeneko liburu bikaiñ eta sentipe-  
nez betetakoa aipatzea.

Idazti ontan, bere egilleak, «Ataño» deiturapena artuta,  
gure Errenderiko «Bordaxar» baserriko Zapirain dar Joxe-  
'ren bizitza neketsua agertzen digu, Joxek berak kontatua.  
Bera osatzen duten 275 orrialde oiek irakurrita, gure base-  
rrietan tamaña ortako liburua sortu eta eman dituan gizo-  
nak ba ditugula jakiteak, erabat poztutzen gaitu.

Esan detan bezela. Bordaxarko aitonaren kontakizunak  
datoz, arrokeriak eta aundi-usteak alde batera utzita. Aur-  
tzaroa... eta aurrekoengandik ikasitakoak... karlisten guda-  
aldia eta bere Aitonaren gaztearo eta ibillerak, bertso  
saioak tartean dirala.

Nere denboran egiña naiz ni  
makiña bat aztarrika,  
txiki xamarra izanagatik  
etzait palta indarrika;  
munduan bada larogei ta lau  
urtez gorako zarrika,  
desapiyua egiten diyet  
sega, bertso ta korrika;  
nolanaikoa etzan izango  
ni sortu niñun pabrika.

Gero, azkeneko eun orrialdeak ez dira ez, orretik  
«Txantxangorriak» ezta giroan bizi izanak. Bederatzi seme-  
ren aita, oso gazterik alargun, grippe izeneko izurrite bil-  
durgarri arrek emaztea eraman ziolarik. Gizonaren kristau  
sakontasuna norañokoa zan garbi ikusten da gertaera illun  
auek irakurtzerakoan.

Eta urrena datozenak ez dira ariñagoak, ez orixe. Txan-  
xtetan ere, 1936 garren gudaldikoak; bi seme espetxe zolo-  
tik iltzera eramanak; beste bi San Kristobala luzarorako...  
Itz-jario aundirik gabe azalduko digu gudaldiko giroa, miñ  
aundiz jota jakiña, zorrotz epaituaz, baño begirunerik bei-  
ñere galdu gabe. Ara nola mintzatzedan. «Gorrotoa ken-  
tzen salla dek bañon kendu ezker ohea. Nai ta naiezkoa,  
Jaungoikoaren aurrerako danok zorretan bai gaude. Jesu-  
sek bere iltzalleri bezela, nik ere barkau nieken noizpait».

Beste amaika alderdi on ere baditu liburu onek, bene-  
tan aipagarri. Idatzita dagon euskera aberatsa, itzez eta  
esaldiz, leuna eta ezin asmatuz ibilli gabe, esarian esarian  
jarioka datorrena, itz batian esateko; ulert-errega eta erri-  
koya, gure baserrian egiten zana, eta auetan, batez ere  
egiten zalako eta dalako, gaurko gure egunetara bizirik iri-  
txi zaigun izkuntza gurea. Merezi du bai, eskuratu eta ira-  
kurtzea, berkin baidu gañera, irakurtzeko gogoa sortzen  
duan garrantzi aundiko beste zerbait, alegiya; irakurtzen  
asi orduko, alik eta bukatu arteko onik ematen ez dizun  
oyetakoa.

Geyegi luzatu gabe, ikusi zagun onoko zatitxo ontan Jo-  
xek bere erri eta izkuntza ganako agertzen digun maitasu-  
na. Onela diyu. «Euskera iltzen bada, Agur Euskalerrari.  
Sua itzali ezkeru, beruak ez baidu luzaro irauten. Zergatik  
uste dek oraindik ere txutik irauten degula? Euskerari eus-  
ten diogulako. Beste arrazoiak alperrik dituk. Or daukazute  
jo bearra. Bai, Ataño bai. Euskerarik ez badegu geiago  
maite, gureak egin dik».

Onelakoxea zen bada gure Errenderiko Bordaxar base-  
rriko Joxe, giza legez eta euzkal zaletasunez jantzia.

Orain guri, gaur bizi geran errenderiarrei dagokigu, li-  
buru onen jabe egin eta berak ematen digun eredu edo  
ejenploa aintzakotzat artzea. Eta gure Josek nai zuan beze-  
la, biyotzez maite degula erakutziko degu, bere alde alegin  
guztiak egin, eta geio eta geiago ta beti euskeraz mintza-  
tzen saiatzen ba gera.

Eskerrak zor dizkiogu «Ataño» izen-ordea artuta idatzi  
duanari, Auspoa liburutegiari eta au sortu eta aurrera dara-  
makien A. Zabala langille paregabeari.